MUTRIKUKO HERRI ALDIZKARIA 43. zbk
2008ko uztaila

KALAPUTXI

Kalbaixo

jai hutsak baino zerbait sakonago

> FELIX MARIEZKURRENA, apaiz pauldarra

> LODIAK ERE MODA-MUNDUAN

matrikula zabalik

2005/2006 euskara ikastaroak

24 URTE / 43 ZENTRO
MAILA GUZTIAK / ORDUTEGI PERTSONALIZATUAK
BEKAK / HABE-REN DIPLOMAK

Euskalduntze maila guztiak. Alfabetatzea. EGA. Hizkuntz Eskakizunak
Iraupena: *iralla - ekaina*

Ikastaro bereziak: Gurasoak. Enpresak. EGA ikastaroa laurunbatetan. Mintzapraktika. Hizkuntz eskakizunak (Osakidetza, administrazioa, hezkuntza). AISA (etorkinentzako ikastaroak). Ostalaritza

Autoikaskuntza zerbitzua: BOGA (On-line)
HABEren 1go eta 2. mailako azterketak euskaltegian bertan.
16 urtetik gorakoentzat
Beka sistema. Galde ezazu!!!

Udal Euskaltegira goaz. Bazatoz gurekin?

UDAL EUSKALTEGIAK
www.udaleuskaltegiak.net

LUARDO ETXEA
Sebanika jaitsiera, 4
MUTRIKU
Tel.: 943 60 30 94
eusk.mutriku@udal.gipuzkoa.net



Kalaputxi hilabetekarixa

Argitaratzailea:
Karenka komunikazio elkartea
20830 MUTRIKU

Telefonoa: 943 60 34 68
e-maila: kalaputxi@topagunea.com
Laguntzailea: Mutrikuko udala
Tirada: 1.900 ale
Lege Gordailua: SS-787/01
ISSN: 1579-4792
Inprimategia: GERTU. Oñati.
Banaketa: Mutrikuko Institutuko azken mailako ikasleak

Mutrikuko udala | Gipuzkoako Foru Aldundia | Eusko Jaurlaritza

Aldizkari honek erakunde hauen dirulaguntza jasotzen du euskara bultzatzearren

*Kalaputxi*k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Eskerrak ematen dizkizue aldizkari hau kaleratzea posible egin duzuen guztioi

EDITORIALA

Uda amaitzear dugula, atzera begiratu eta une goxoak eta ederrak ikusten ditugu aurtengo oporretan pasatutakoak. Horiek joanda, berriz ere lanera, ohizko eginkizunetara bueltatu gara guztiok: lanera, ikastera...

Kalaputxi ere bueltatu da, indarberrituta, herriko etxe guztietara ailegatzen laugarren urtea izango duenaren bila. Eta jarraituko dugu izan ziren eta izango diren kontuak errepasatzen, gogoratzen eta aurreratzen. Baina eginkizun horretarako zuen laguntza, zuen konplizidadea eskatu nahi genuke berriz ere: Zerbaiti buruz idatz daitekeela uste baduzue, argazki zaharrak badituzue, zorionak eman nahi badituzue...hementxe duzue Kalaputxi.

Kalbaixoak ere badatoz eta Kalaputxik herkide guztioi jaiak alaitasun giroan igarotzeko opa dizue.

aurkibidia

Informaziua	4
Zeuk esan	5
Puri-purixan	6
Auzoz auzo	8
Bi hitzetan	11
Karenka	12
Udako argazkiak	14
Gizartia	16
Kulturia	18
Kirola	20
Historixa	22
Zorion agurrak	24
Argazki zaharrak	25
Agenda	26

KALBAIXOTAN ere
gustuko izan dadin,
guztiekin egin
Mutrikuko udala
Euskara batzordea

INTERESEKO TELEFONOAK

OSASUNA

Anbulategia (Osakidetza) 943 60 43 00
DYA Mutriku.....943 60 33 17
DYA zentrala.....943 46 46 22
Mendaroko ospitala 943 03 28 00
Odol emaleen taldea.....943 60 39 30
Javier Otxagabia botika.....943 19 50 26
Lon Apraiz botika.....943 60 32 50
Larrialdiak 943 461 111

ADMINISTRAZIO BULEGOAK

Udaltzaingua.....943 60 70 48
.....679 16 25 00
Udaletxea.....943 60 32 44
Turismo bulegoa 943 60 33 78
Posta zerbitzua 943 60 30 44
Bake epaitegia 943 60 32 44
Epaitegia.....943 60 70 49

IKASKUNTZA-IRAKASKUNTZA

Goizeko Izarra ikastola 943 60 36 75
San Miguel ikastetxea 943 60 31 95
Mutrikuko Institutua 943 60 36 27
Udal euskaltegia 943 60 30 94
Musika eskola 943 60 37 80
Haur eskola publikoa 943 60 3143

GIZARTE ONGIZATEA

Gizarte Ongizate zerbitzua.....943 19 50 81
Anai Arte jubilatuen egoitza 943 60 34 10
Mikel Deuna zaharren egoitza.....943 60 38 71
Anaiarte jubilatuen egoitza 943 60 30 83

ZEBITZUAK

Pesa 902 10 12 10
Eusko Trenbideak 902 54 32 10
Loiuko aireportua.....905 50 50 05
Hondarribiako aireportua 943 19 23 47

BESTE BATZUK

Liburutegia.....943 60 41 82
Kiroldegia 943 60 31 75
Frontoia 943 60 45 44
Gasolindegia 943 60 32 10

Autobusak

MUTRIKU – DONOSTIA – MUTRIKU

Mutrikutik	Astegunak	7:00 / 10:00 / 13:30 / 19:30
	Zapatuak	10:00 / 16:30
	Jai egunak	10:00 / 19:30
Donostiatik	Astegunak	8:00 / 11:30 / 14:30 / 20:30
	Zapatuak	11:30 / 19:30
	Jai egunak	11:30 / 20:30

MUTRIKU – BILBO – MUTRIKU

AUKERAK:

1. BIZKAIBUSen autobusa hartu Ondarroan:
   1- 6:10ean hasi eta 20:10 arte orduro.
   2- 6:40ean hasi eta 19:40 arte orduro.

2. PESAren autobusa hartu Eibarren, haraino Euskotrenen

ONDARRUA - MALLABIA - ONDARRUA

Ikus Kalaputxi 13. alea

Trenak

Tren guztiak, adierazitako lehenengo ordutik aurrera, **ORDURO**

DEBA – DONOSTIA – DEBA

Debatik 6:44-7:44-...-21:44
Donostiatik 5:47-6:47-...-20:47
Jai egunetan 8:44etan hasiko dira

DEBA – BILBO – DEBA

Debatik 6:43 -7:43 -...-20:43
Bilbotik 6:00 -7:00 -...-20:00
Jai egunetan 8:43etan hasiko dira

DEBA – EIBAR – DEBA

Debatik 6:43 / 7:43 / ... / 21:43
Eibartik 6:13 / 7:13 / ... / 21:13
Jai egunetan, 8:43etan hasiko da
Jai egunetan, 8:13etan hasiko da

Zaintzako Botikak (Mutriku – Deba)

Tel: OTXAGABIA: 689 58 57 59 APRAIZ: 630 05 50 97
PORTILLO-ZALDUEGI: 669 26 22 01

IRAILA	
1etik 4era	Portillo (zapatu goizean, **Jabier Otxagabia**)
5tik 11ra	**Jabier Otxagabia**
12tik 18ra	Portillo (zapatu goizean, **Lon Apraiz**)
19tik 25ra	**Lon Apraiz**
26tik 30era	Zalduegi (zapatu goizean, **Jabier Otxagabia**)

URRIA	
1 eta 2	Zalduegi (zapatu goizean, **Jabier Otxagabia**)
3tik 9ra	**Jabier Otxagabia**
10etik 16ra	Portillo (zapatu goizean, **Jabier Otxagabia**)
17tik 23ra	**Lon Apraiz**
24tik 30era	Zalduegi (zapatu goizean, **Jabier Otxagabia**)

IBARPLAS
leihoaren erreferentzia
Itziarko poligonoa, C pabilioia 20200 ITZIAR Tel. 943 199236 ibarplas@ibarplas.euskalnet.net

gutunak

Gogoratu gutun guztiek agertu behar dutela nork idatzita datozen, nahiz eta ezizenez, inizialez edo bestela sinatuta argitaratu. Ez da argitaratuko norena den agertzen ez duen gutunik.

Utzi esateko duzuna Barrenkalea, 12 - beheko buzoian edo kalaputxi@topagunea.com helbidean.

BATZUK NAHI DUTENA EGITEN DUTENEAN

Uda patxadan egoteko eta naturaz gozatzeko sasoia da askorentzat. Mutrikuko hirugarren hondartza leku aparta da horretarako. Baina moilatik Burumendira iristeko egin duten pasabidean zehar joatean, zikinkeria artetik ibiltzera derrigortuta egon gara egun batean bai eta hurrengoan ere bai. Badirudi gauez "botilloia" edo antzeko zerbait egiten dutenak ez direla kapaz bi metro gorago Burumendiko etxeen aurrean dagoen kontenedorera eurek hustutako kristalezko botila apurtuak, kokakola latak, pipa azalak e.a botatzeko. Eurak kapaz ez, eta, non daude inguru hori garbitzeko ardura dutenak?

Hirugarren hondartza gainean, azken urteetan bezala, kartel dotore batean erabiltzaile guztion bizi kalitatea eta elkarbizitza hobetzeko, hondartzan dauden zerbitzuak zeintzuk diren, bertan egin daitekeena eta ezin dena egin argi eta garbi azaltzen da. Zerbitzuen artean dutxa eta soroslearen irudiak ikusten dira eta egin ezin direnen artean txakurra dago. Kartela denek ikusten dute, baina batzuk nahi dutena egiten dute.

Esate baterako, azken urteetan ez da bertan sorosle bakar bat ere ibili. Soroslerik ez, baina txakurrak ia-ia egunero, eta batzuetan ez bat, baizik eta bi, hiru eta lau ere kontatu izan ditugu egun berean. Hain zaila al da kartelean ipintzen duena betetzea? Txakurren nagusi askok esango dute euren txakurrak pertsona asko baino garbiagoak direla e.a. Eta egia da nagusi askok kaka jasotzen dutela, baina egiten duten txixa? Imajinatu txakur batek zure ondoan dagoen harria hartu duela txixa lekutzat, eta egun osoan behin eta berriro doala, eguzkipean, bertara txixa egitera. Edo jolasteko gogoa duela eta hondarra aztertzean zeuri botatzen dizula, edo zeure ondoan dabilela bainatzen. Bilatzera joan zaren lasaitasuna pikutara joan zaizu.

"Nahi dudana egiten dut" lelopean, hirugarren hondartzara eskaileratan behera motorrarekin jaistea bururatzen zaio beste bati, eta ez eguraldi txarra dagoen egun batean. Eguzkiaz eta hondartzaz gozatzera doan jende pila bat beherantz doan bitartean, berak motorra hartu eta kontrako bidea, gorantz, egiten du lasai-lasai, beste guztien izuaren artetik.

Denok dakigu eskailera horiek ez direla motorrean ibiltzeko, denok dakigun bezala Erdiko Kalean, Frontoi Kalean eta antzekoetan ezin dela motorrarekin gora eta behera ibili kristoren abiadan eta izugarrizko zarata eginez. Baina hori ere egiten da eta jasan egin behar. Non dago udaltzaingoa horrelakoak gertatzen direnean?

Eta amaitzeko, Samikollako Parkea, Egañaneko Frontoia, bertako aparkalekura igotzeko eskailera sarrera eta denontzat diren leku irekietan botatzen diren zikinkeria eta kaka artean bizitzen jarraitu behar al dugu?

Uste dugu bai herritar bakoitzak bai udaletxeko arduradunek elkarbizitza hobetzeko eta herriaz gozatzeko goian aipatu bezalako egoeratan erantzukizuna dugula eta hobetzen saiatu behar dugula. Ea handik eta hemendik ihesika edo behar ez direnak jasaten ibili beharrean, arrisku gutxiago, lasaiago eta garbiago den Mutriku gaurtik eraikitzen hasten garen.

I.A.k Mutrikun bizitzen gozatu nahi dugunon izenean

ZORIONAK MUTRIKU!

Laster batean Babes Dikerako obrak hasiko omen dira. Berri hau entzun edo irakurri nuenean, halako poztasun handia somatu nuen neure barrenean. Gure ametsa, gure gurasoena eta aurrekoena bete egingo da itxura guztien arabera, eta hau, mutrikuarrok, oso pozgarria da guztiontzat.

Babes Dikea ez du inork kuestionatzen. Agian, ikuspuntu teknikoren bat edo beste, baina egia esan guk gorabehera horietan ba ote dakigu ezer…. Gainera, Babes Dike hau aukeratu aurretik hainbat froga egin omen dira, ea olatuak geratzen diren, ea korrentak desagertzen diren…

Babes Dikea gizakian oinarritzen da, pertsonon segurtasuna du helburu eta horrek ez luke izan behar beste inolako sasi ilustraziorik. Horretaz gain, etorkizunerako oinarria jartzen du, eta lagundu ere bai, mutrikuarrok etorkizunean zein herri mota nahiko genukeen erabaki dezagun.

Aipagarria eta zoriontzekoa da gai honen inguruan mutrikuarrok izan dugun batasun sena. Alderdiek, erakundeek eta herritarrek erakutsi duten batasun jokabidea txalogarria izan da eta horri esker, neurri haundi batean, ikusiko dugu Babes Dikea.

Aparta izan da bestalde *Mutriku Bizirik* Taldeak egin duen lana. Bere bitartez egin dira Babes Dikerako gestioak, bideratu dira hobekuntzak eta, ondorioz, ez da galduko hondartzarik, hobetu baizik. Piszina berria, pasealekuak… dira beste ekarpen interesgarriak.

Babes Dikea egiteko 25 hilabeteko epea jarri omen dute. Beraz, gauzak ondo badoaz, 2007ko Gabonetarako bukatuko dira obrak. Bitarte horretan mutrikuarrok, lasai eta errespeto osoz, geure arteko eztabaida bideratu behar genuke Portu Berriaren inguruan. Izan dezakeen potentzialitate guztia aztertu, sor ditzakeen onurak eta kalteak mahairatu, etorkizunean batzuk eta besteok amesten dugun herri tipologiaz hausnartu eta herriratu daitezkeen alternatiba desberdinen artean herriak berak erabaki.

Horra hor, bada, guztiontzako *debereak*. Entzun dut ezker abertzalea hasia dela langintza honetan.

M. Z.

Senegaldik Mutrikura etorkizun bila

Gaur egun ohituta gaude etnia eta kolore desberdineko jendea gure artean ikusten. Egoera latza da beren herrian dutena, batzuk gerrateetatik ihesi, besteak berriz lan eskasiari aurre egin nahian... Europara jo dute eguneroko ogia irabazteko asmoz. Hona iritsi eta egoera ez da uste zutena, hemen ere txakurrak oinutsik.

Iaz hemengo zenbait lagun Senegalera joan ziren hango egoera ezagutzera. Orain senegaldarrak izan ditugu gure mahaiaren inguruan beren egoeraren berri emateko. Hiru lagun ditugu gurekin, bik ez dute paperik eta anonimotasuna gordetzeko eskatu digute, hirugarrena Omar Sene da.

Senegalen lan eskasia eta Europara egin dute jauzia... bizitza berri bat bilatzera etorri gara hona, gu arrantzaleak izan gara, han ere lan horretan aritzen ginen baina han ez da asko irabazten eta familia handia dugu aurrera ateratzeko (batek bi emazte eta hamabi seme-alaba ditu, besteak emaztea eta lau seme-alaba eta hirugarrenak emaztea eta semea).

Han arrain asko dago baina azpiegiturarik ez... arraina kontserbatzeko arazo handiak daude, hango instalazioak oso zaharkituta geratu baitira; argindarra edozein momentuan joaten da… ez gaude prestatuta.

Hona iritsita, gauzak ez dira desio bezala joan... paperak lortzea oso zail dago baina itxaropena dugu eta ez dugu etsiko. Bestalde, orain lan gutxien dagoen garaia da eta horrek ere nolabait eragiten du guregan baina inguruan oso jende ona dugu eta babestuta sentitzen gara.

Gustura sentitzen dira Mutrikun... ni lehen Andaluzian egondakoa naiz baina anaia hemen zegoen eta hona etorri nintzen. Ez naiz damutzen, oso jende jatorra aurkitu dut Mutrikun, beti laguntzeko prest, beti animoak ematen. Hori asko estimatzen da zure herritik hain urruti zaudenean. Jendearen harrera onaz gain hemengo lasaitasuna gustatzen zaigu.

Ni Bermeoko itsasontzi batean nenbilen, han Senegalen. Hemengo itsasontzia izan arren hango soldata ordaintzen ziguten, hau da, oso gutxi eta aurrera egin nahi banuen alde egiteko aukera baino ez nuen. Erabaki hori hartzea oso gogorra da baina ez duzu beste erremediorik, familia eta etxekoak aurrera atera nahi badituzu. Nire kezka nagusiena paperak lortzearena da, paperik gabe ez zara inor, ez duzu ezertarako aukerarik eta horrek oso larritzen nau. Inguruan lasai egoteko esaten didate, denborarekin lortuko ditudala baina loa galerazten dit arazoak.

Ni, berriz, paperak lortzeko irrikitan nago nire familia ikustera joan nahi dudalako.

Zaharrenak berrogeita hamar urte ditu eta besteak gazteak dira adina esan ez badigute ere... guretzat adina ez da garrantzitsua, ez diogu kasu handirik egiten horri.

Osasun kontua oso gaizki dago medikuak eta botikak ordaindu egin behar dira, gaiso larriren bat baduzu akabo!

Ikaragarri estimatzen dugu hemen jasotzen dugun elkartasuna!

Lanez gain etxebizitza aurkitzeko arazoak dituzte... ez da erraza etxea aurkitzea, guk Mutrikun Etxebideren bidez lortu dugu, baina badago Ondarroan lan egiten duenik Durango eta Elorriora joan direnak bizitzera eta hori azkenean oso nekosoa izaten da.

Hemengo ohituretara ere eginda daude... guretzat gogorrena klima da, hotz handia egiten du hemen. Ni goizeko lauretan eta bostetan joaten naiz Ondarrura lanera, bizikletan... Aurten egin duen neguarekin... gorriak ikusi ditut! Senegalen hotz handiena egiten duenean hamabost gradu izaten dira; hemen berriz... Ekaina, uztaila eta abuztuan izaten dira euriak han, eta egiten duenean izugarria botatzen du baina hamar minutura atertu eta ez du ematen euria egin duenik ere. Ez du euri asko egiten eta horrek ur eskasia dakar berarekin. Ura gauza estimagarria da guretzat, urrea bezala zaintzen dugu; hemen, berriz, kanilari eman eta nahi adina ateratzen da.

Hemengo janaria ere gustukoa dugu, marmitakoa... baina gure etxeetan hango erara jaten dugu, gure sukaldaritza egiten dugu.

Ohiturez gain erlijioa ere oso gogoan dute... musulmanak gara eta gure errezu eta ohiturekin jarraitzen dugu, ez dugu inolako arazorik.

Munduaren berri izatea garrantzitsua... Senegal herri ikusgarria da eta bertara doazenak oso gustura sentitu izan dira bertakoekin. Egia da hiriko eta herrietako bizimoduak guztiz desberdinak direla, hemen bezala, baina gure etxeetako ateak zabalik daude joan nahi duenarentzat.

Kultura desberdinak ezagutzea oso aberasgarria da denontzat.

Oso gustukoa dugu hemengoekin hitz egitea, asko ikasten dugu. Zure herritik kanpo ateratzea oso garratza da eta ikaragarri estimatzen dugu hemen jasotzen dugun elkartasuna. Gu lanera etorri gara eta beharrezkoa dugu jendeak gu ulertzea eta era berean gu laguntzea, lana dela, etxebizitza dela...

Animo eta eutsi goiari!

Arrantza kontua betidanik ezagutu dugu eta gustukoa dugu itsasoko lana!

KALBARIO ETA MAIA

jai hutsak baino zerbait sakonago

Kalbarioko baselizak antzinatik, baina era berezian azken bi mendeotan, mutrikuarrongan sortzen duen erakarpena oso berezia dela esatea ez dago zalantzan jartzerik. Behinola elizatxoa izanik ere, ez du, horregatik, beragana xamurki hurbilduko zen maitalerik falta izan. Nekazari nahiz arrantzale, barne-barnean zeramaten bizimodu gogor hartan babesa eta itxaropena ematen zien gurutziltzatua. Hamaika bihotz samurtuko zen itsasoetako edozein bazterretan edota etxe zokotan maitasunez beteraz gogoratzean. Ez agintarien erabakiak, ez zoritxarreko gertakariak, ez dira herritarrengandik ezagutu duen maitasun sakona zapuzteko gauza izan. Horra hor egia horren aitorpenik garbiena.

Hor dugu itsasoari karenka begira iraganean Urkamendi izena omen zuen mendixkaren gainean tinko, Laranga, Olabarrieta eta Ibiri baserri auzoen erdialdean. Mutriku herria bere altzoan eztiki hartzen du, zainduz bezala, inolako gaitzik gerta ez dakion edo. Batzuek 1574 urte inguruan ere kokatu arren, lehen agiri idatzi fidagarria 1596koa da; bertan 1588tik baseliza deseginda omen zegoela eta berreraikitzeko erabakia aipatzen delarik. Garai hartan, batzuetan baseliza eta bestetan gurutze-toki bezala izendatzen dute. Gurutze-tokiak santu edota gurutze baten irudia zuten eta herrietako sarrera-irteeretan nahiz bide bazterretan egon ohi ziren otoitz-leku xumeak izaten ziren.

1625eko agiri batek, ostera, zera dio: "*Maiako Kalbario mendiko baseliza, inguruan etxaldea du, zaintzailea eta meza ematen da" (1).* Bi mende geroago, beste batean, Maiako baseliza bezala ageri zaigu. Zaintzailerik, serorarik izan zuen. 1728an, adibidez, bertako serora zen Ana Basurko hil zen eta udal agintariek Klara Bidaburu izendatu zuten haren ordezko. 1770 urteko azaroan Iruñeko gotzainak, gutun baten bidez, herriko baselizak elizkizunetarako ixtea, serorak kentzea eta beraietan zeudekeen ondasunen zerrenda egiteko agindu zuen. Parrokiako erretore zen Joseph Azilona jaunak, irtenbidea aurkitu nahian, garrantzitsuenen aldeko arrazoiak azaldu zituen guztiak itxi ez zitzaten. Kalbariokoa, urrun egoteaz gain, balio gutxikotzat hartzen zuten, nonbait, eta itxi beharrekoen artean zegoen. Ondasunen zerrendak ere oso xumea zela agertzen digu; doi-doi elizkizunetarako behar ziren jantzi zein bitxien jabe baino ez zelarik. Ixteko agindua, nolanahi ere, ez zen hiru urte beranduago arte bete.

"Betidanik debozio berezia izan diogu..." (1869)

Aginduak agindu, arrantzaleek gurutziltzatuarenganako betidanik izandako

KO GURUTZE SANTUA

debozio zein miresmen handiak ez ziren ez makaldu eta, etsi ordez, hor iraun zuten, nekagaitz, lanean, Kalbarioko baselizaren ateak berriro zabalik ikusi arte. Horrela, 1816ko abenduan, "*arrantza ontziak portu honetara gidatu eta zuzentzeko beharrezkoa ikusten denez..*" argudiatuz, herriko arrantzaleen kofradiak gotzaindegiari baseliza bere kontura konpontzeko baimena eskatu zion berriro ere meza ospatu ahal izan zedin. Urte batzuk geroago, Iruñeko gotzainak egindako bisita batean egoera kaxkarrean ikusi omen zuenez, "*meza ospatzeko behar adinako duintasunik betetzen ez duela eta..*" berriro ere ixteko agindu zuen. Edonola ere, arrantzaleak ez omen zeuden beraien zaintzailearen auzia bere horretan horren erraz uzteko prest eta, 1869ko uztailaren 5ean, berriro ere, Mutrikuko arrantzaleen kofradiako buru zen Jose Antonio Ituartek gutuna zuzendu zion oraingoan Gasteizko gotzainari (elizbarrutia ordurako eskualdatuta baitzegoen), ospakizunetarako berriro zabal zezaten arrazoiak azalduz. "*Betidanik debozio berezia izan diogu..*", "*itsasora irtetean guztiok bere eskuetan jartzen gara eta, aurrez aurre dugunez, gidatzen gaitu..*", "*etxeratzean otoitzak zuzentzen dizkiogu eta era berezian ekaitzenpean gaudenean..*", beraz, "*azkenaldiko konponketek berriro meza emateko egoera egokian jarri dutenez, baimena eman dezazula*". Baiezkoa eman eta, handik hilabetera, mezak ematearekin batera bedeinkatu zen, jende ugari bilduta-ko ospakizunean.

1596an lehenengo agiria: berreraikitzeko erabakia

Urte batzuk beranduago, 1886an, Kalbarioko ospakizunei indar handiagoa eman nahian, Gurutz Bidea egiteko baimena eskatu zuen Parrokiak. Diotenez, 1872 eta 1873 bitartean, bigarren karlistada aldian, bonbardaketen beldurrez, portuan sare konponketan jardun ohi zuten emakumeak treinak gurdietan bildu eta Kalbariorantz abiatzen ziren beren lana babesean burutzera.

Eraikuntzari dagokionez, arestian esan bezala, jatorrizkoa xumea zen, gaur egun aldareak eta sakristiak hartzen dutena baino ez. 1907ko martxoaren 31an, Pazko gauez, zorigaiztoko sute batek guztiz deseginda utzi zuen. Herritar andana, gizon zein emakume, arrantzale nahiz baserritar, nekagaitz aritu zen auzolanean. Beranduago, hala ere, lanak profesionalen esku trebeagoetan utzi zituzten. Parrokiak diru bilketa jarri zuen abian eta, esan behar, herriak bere egin zuen Kalbarioko baselizak iraun zezan erantzun bikaina emanez. Maixa baserriko Juan Jose Txurrukak baseliza inguruko lurrak eskaini zituen handiagoa egin ahal izan zezaten. Horrela, lehen zen elizatxoari barnealde berria erantsi zioten, aurrekoa aldare eta sakristia bezala utzita. Eskailerak jarrita, alde berria zaharrarekin lotu, aldare berriari aurrealdean burdinazko hesitxoa jarri, sarrera nagusiaren gainean korua eta eskuinaldean bertarako eskailerak egin zituzten. Orobat, beste bi sarrera txikiago ere egin zizkioten elizari ez-

ker-eskuin hegaletan, orain urte gutxi desagertuak. Berorietan, 1909. urtean ur bedeinkatu pontetxoak ere jarri zituzten. Urte berean, alboetan Sta. Elena eta Mª Magdalenaren aldaretxoak ere jarri zituzten. Bi urtez luzatu ziren lanak.

1909ko Kalbario jaietarako aste gutxi batzuk besterik geratzen ez zirela, lanak bukatzear zeudela, berriro ere Gurutz Bidea berreskuratzeko eta alde berrian kanpai berria jartzeko eskaerak luzatu zituzten. 1924. urtean, gaur egun horren adierazgarri egiten duen aterpea gehitu zitzaion. Urteen joanean konponketa zein aldaketa ezberdin ugari ezagutu ditu barruak zein kanpoak, orain duen itxura ezin bikainagora heldu arte. Horietan azkena 1996an izan zen.

Urteetan izandako bilakaera hau ez da, ordea, besterik gabe gertatu. Fede handiko kide batzuek, zaintza egokia eskaintzeaz batera debozioak ere sendo iraun zezan arduratuta, urteetan lan eskerga egiten ari den kofradia sortu zuten. Hamaika lagunek jardun du, harrezkero, denbora luzez lan isilean, kezka eta buruhauste ugari bereganatuz, baselizak zein bertako jaiek urteetan geroz eta indartsuago iraun dezaten. Eman du, bai, fruiturik, alafede! Urte askotan arrantzaleen partaidetza ugaria izanik ere, gaur egun, bizimoduaren aldaketaren seinale, inguruetako baserritarrak dira bertako ia kide guztiak.

Ezin gogora ekarri gabe utzi, bestalde, datorren urtean 60 urte beteko dituen 1946.urteko zorigaitzeko Kalbario egun hura. Gertatutako istripu izugarria baselizaren historiari betiko estu lotuta geratuko da. Egun goibel hartan euri langarra ari zuen eta, beti bezala, jendetza handia goialdean. Ametza tabernako jabeak 10 bidaiarientzat edo izan zitekeen auto ekarri berri handiarekin igo ziren. Itzulerakoan eliza ondoko zabalgunean jendea hartu eta, bidaiariz beterik, han abiatu zen herrirantz; tamalez, abiatu eta metro gutxitara, ustez, eskuinaldeko gurpilak bide bazterrean katigatu eta ateratzeko ahaleginean, maldan behera iraulka erori zen. Sei hildako eta hainbat zauritu utzi zituen. Udaletxeko idazkari zen Ramon Olaizola eta bere alaba Leonor, Leizarrengo Agustin Agirre, Mª Carmen eta Francisco Lekube anai-arreba gazteak eta autoaren gidaria zen ametzaneko Eugenio Zubizarreta izan ziren hildakoak. Kolpe ikaragarria izan zen herriarentzat.

1728an Ana Basurko serora hil zen eta Klara Bidaburuk ordezkatu zuen

XIX. mendearen azken laurdenaz geroztik, arrantzaleek jai hauek izan dituzte, ia oraintsu arte, beren hegaluzearen harrapaketa kanpainaren jomuga. Horren kariaz, irailaren 14an, egunsentiko lehen argi printzez geroztik, herriko dozenaka txalupetako jabe, lankide zein txalupamutil, familiakoekin batera, ontziaren izenean ateratako mezaren inguruan bildu izan dira harrapaketengatik eskerrak eman nahiz hurrengoak hobeak izan zitezen laguntza eskatzeko. Ondoren armadoreek beretarrei eskainitako jan-edanez bapo aseta, kontu amaiezin, kantu eta algaraz bizi izan dute eguerdi bitartea. Beste horrenbeste nekazariek ere, urteko uztagatik eta familietan joandakoen aldeko mezaren ondoren, denbora luzez ikusi gabeko adiskideak agurtzeko zein honetaz eta hartaz berriketa franko egiteko parada ezin hobea gertatzen zaielarik.

Lehen bezala, orain ere, *miraria* egiten darrai Kalbarioko Kristoak. Urtero, pentsaera zein sentipen, askotan hain desberdinetakoak garen herritarron bilgune eder eta alai bihurtzea lortzen baitu denon gozamenerako.

INFORMAZIO ITURRIAK:

1- Compendio historial de Guipuzcoa. Lope Martinez de Isasti.

• Ermitas de Gipuzkoa. Antxon Aguirre Sorondo, Koldo Lizarralde. Barandiaran Fundazioa

• Mutrikuko Parrokiako Artxibategia

JOSE ANGEL LIZARDI

ARRIETA
AUTOZERBITZUA
ONDA
J.M. Altzibar etorbidea - 943 60 31 01

aparra
Kalbaiko jaixetan lagun giroan gozatu!
JANTZIAK - PITXIAK
Erdiko-kale, 29
Tfno.: 943 60 45 94
20830 MUTRIKU
(Gipuzkoa)

BERTANen 1000 euroko zozketa

Azken urteotan, BERTAN dendarien elkarteak herritarrentzat antolatzen dituen ekintzen artean, besteak beste uda partean 1000 euroko zozketa izaten da. Elkarteko kide diren dendetako erosleen artean, beraien fideltasuna nolabait saritzeko egiten duten zozketa honek herritarren artean ilusiotxoa zabaltzen du eta saridunari poz ederra ematen!

Izan ere saria gustagarria baita oso, bestela galdetu aurtengo saritua izan den Maite Astigarraga Odriozolari.

Kalbaixotako BERTSO JAIALDIA

Bertso eskolakoek adierazi digutenez, irailaren 10ean Bertso Jaialdia izango da Miruaitz Pilotalekuan, gaueko hamar eta erdietatik aurrera. Oholtzara igoko diren bertsolariak, Lizaso, Egaña, Iturriaga, Irazu eta Xabier Astigarraga mutrikuarra; gai-jartzaile, Aitzol Astigarraga.

Nagusiek hiru euro eta hamasei urte azpikoek euro bat ordaindu beharko dute ikuskizun bikain honetaz gozatzeko. Hortaz, Kalbaixo jaien aurreko zapatuan hitzordua jarrita dago herriko bertsozaleentzat.

BOISEKO jaialdia

Bost urtero ospatzen da JAIALDIA Estatu Batuetako Idahoko Boisen eta aurtengoan mutrikuarrak ere hantxe izan dira. Udalaren eta Jaurlaritzaren laguntzatxo batzuk izanda, beraiek ordaindu dute bidaia eta bertako egoitza, berriz, jaialdiaren antolatzaileek. Euskal Etxearen eta Jaialdiaren antolaketaren arduran, ama Arantzamendi baserrikoa zuen Julian Lete.

Duela zazpi urte Mutrikuko soka tira taldea munduko txapelketetara joanda, astebete pasatu zuten Boisen oporretan. Orduantxe hartu zuten bi urte geroago izango zen Jaialdian izateko konpromisoa. Eta hantxe izan ziren bi urte beranduago, duela bost urte. Aurten, hortaz, bigarren aldia Boiseko Jaialdian, bost egun irauten duen euskal jaian.

Malen egunean Goiko plazan egiten duten erakustaldiaren antzekoa egin zuten Boiseko amerikar-euskaldunen eta hara bisitan joandako hamaika euskalzaleren aurrean. Ordubetean jardun zuten bildutako lau mila ikusleen gozamenerako eta horiengandik jasotako txalo zaparradak izugarriak izan ziren. Mutrikuarrekin batera, Galdakaoko dantzariak, Ostolaza eta Goenatxo harrijasotzaileak, Azurmendi, Arrospide eta Larretxea aizkolariak eta Ajuria eta Enbeita bertsolariak ere izan ziren itsasoaren alde honetako euskaldunen ordezkari.

Bitxikeria moduan, lau lauren kontra egindako tiraldian Boiseko futbol-amerikar taldekoen aurkako saioa izan zen, mutrikuarrak amerikarrei nagusituta.

Hurrengo Jaialdiari buruz galdetuta, soka tira taldeko lagunek esan digute polita litzatekeela berriz joatea. Ea, bada, bost urte barru gure herriaren izena berriz ailegatzen den Boiseraino.

Felix Mariezkurrena,

APAIZ PAULDARRA

2004ko abenduaren 11an apaiz egin zen eta hurrengo egunean eman zuen Meza Berria Mutrikuko Parrokian. 33 urte ditu San Vicente de Paulen jarraitzaile honek. Bost urte eman ditu Barakaldon Pauldarren Ikastetxean eskolak ematen eta urtebete, berriz, bertako parrokia batean apaiz lanetan. Hurrengo pausuek, ordea, urrutira eramango dute; izan ere, guk aldizkaria eskuetan izan aurretik, irailaren 5ean aterako baita Honduras aldera, misiolari.

Noiz erne zitzaizun apaiz bokazioa, Felix?

Uste dut lehenengo etxean ikusitakoa izan zela: elizara etortzen ginen... Nire bizitza osoak elizarekin zerikusia izan du: ikasi ere mojetan ikasi nuen San Migelen... Hortik, gutxi gorabehera, horrelako giro bat izan dut eta horren barruan, ba, apaiz bat etorri zen Mutrikura konbibentzia edo elkarbizitza saio batera eta bere esperientzia kontatu zuen: zer egiten zuen egunero eta... Gustatu egin zitzaidan. Nik, orduan, hamar-hamaika urte neuzkan; umea nintzen. Ni harritu egin ninduen, oso gazte ikusten nuen, oso alaia zen, alaitasun berezi bat zerion, berritsua, ez zen isiltzen... Gauza asko zeuzkan kontatzeko. Berak azaldutako bizimodua gustatu zitzaidanez eta bera ere misiolaria zenez... Momentu hartan eta adin harekin suhiltzaile bat etorri izan balitz ere igoal gustatuko zitzaidan, baina gure bizitzan badira horrelako momentu batzuk zerbait sortarazten dutenak eta nik uste dut momentu hartan piztu zela kandelatxo bat nire barruan, eta apaiz izan nahi nuela pentsatu nuen. Poliki-poliki, gero, nire fedea eta oinarri haiek sakondu egin ziren.

Etxekoen babesa izan duzu, eta?

Etxean pozik eta horrelako "zerbaitekin" ikusi nindutenez ez zidaten ezetzik esan; hamabost urterekin Teruelera joan nintzen Pauldarren Ikastetxe batera. Familiak beti lagun egin izan dit; eta, egia esan, gurasoen jarrera nahiko garrantzitsua izaten da.

Zu Apaiz Pauldarra zara, zein da diferentzia?

Apaiz Pauldarrak komunidadean bizi gara, kongregazio bat osatzen dugu eta zenbait eginkizunen artean (parrokietan, irakaskuntzan, Karidadeko Ahizpekin, presondegietan...) misio lurraldeak ere baditugu gure ardurapean. Bost mila inguru izango gara Pauldarrak mundu osoan.

Misiolari izateak erakarri izan zaitu umetatik, kontaguzu...

Misioetarako gauza hori barruan izan dut betidanik; txikitatik nuen ideia hori. Esan zidaten Hondurasen gutako misiolari bat osasunez gaizki dabilela eta apaiz bat behar dutela han, eta ea bertara joango naizen. Eta ni gustura baino gusturago joango naiz. Orain dela hamar urte bi aldiz izan nintzen bertan eta ezagutzen dut inguru hura. Pa-

"Hamabost urterekin Pauldarren Ikastetxe batera joan nintzen Teruelera"

Gizonezkoen ileapaindegia
Gora Kalbaixuak!
IMOTZ
Erdikokale, 34 - behea MUTRIKU Tel.: 943 60 41 62

santalucía ASEGURUAK
NTRA. SRA. DE BEGOÑA
EHORZKETA
Erdiko kalea, z/g - Tel.: 646351352 - 943201095 (24 ordu)

"Hamar urte geroago, Hondurasera itzuliko naiz"

rrokia batean hiru apaiz egongo gara eta hiruron artean ehun eta berrogeita hamarren bat kristau komunitateren ardura eramango dugu: ezkontza, bataio, hileta, mezak eta abar.

Baditugu han "Delegados de la Palabra" deritzegun arduradun sekular batzuk eta eurek egiten dute bitarteko lana. Bestela, ezinezkoa izango litzateke guztiengana iristea, jakina! Dena antolatuta dago eta eurek badakite noiz joango zaien apaiza. Han batetik bestera joateko, askotan, zaldiz edo oinez edo kaiuko izeneko piraguetan egin behar izaten da.

Fede aldetik ez ezik, ekonomikoki dituzten beharrei ere erantzuten saiatzen gara. Han beste kontu garrantzitsu bat osasuna da eta, horretan, zorionez, gurekin ditugu Medicus Mundi erakundeko sendagileak.

Ez al dizu inork esan hemen ere apaizak behar ditugula eta gelditzeko?

Ez, ez. Ni Kongregazioaren esanetara nago eta Kongregazioak berak erabakitzen du non zer behar den. Bost urtetan egon naiz ikastetxe batean eta urtebetean parrokia batean. Orain Hondurasen daukagun misio lurraldean apaiz bat behar dute eta haraxe noa irailaren 5ean. Beharrak daudenean erantzuna eman behar zaie, eta nigan pentsatu dute hara joateko.

Nola eragingo die globalizazioak erlijioei?

Nire ustez, globalizazio politikoa etorri da, ekonomikoa ere bai; oraindik egin ez dena pertsonen artekoa da. Erlijioaren inguruan ere badaude nolabaiteko saiakerak. Vatikanoko II Kontzilioak zioen pertsona guztiengan dagoela Jainkoaren nahia eta errespetatu egin behar ditugula denak, bai Budismoarenak, bai Hinduismoarenak... Azkenean denok ari gara Jainkoaz hitz egiten. Kontua ez da denok berdinak izatea, ez; bakoitzak bere berezitasunak dauzka. Baina hor dauzkagu: Taizé (herrialde guztietako sinistunak elkartzen dituena); hor daukagu ekumenismoaren aldeko lana; interkonfesioa, batez ere Ratzingerrek bultzatu zuena aurreko Aita Santuaren garaian; Aita Santua eta Dalai Lama elkarrekin ikusi izan ditugu sarritan... "Benetako erlijioa neurea da eta besteak ez"; hori gainditua dago! Lehenago esaten zen: "Elizatik kanpo ez dago salbamenik". Baina hori Lehenengo Kontzilioakoa da. Bigarrenak esaten du "Toki guztietan pertsona guztiek Jainkoarenganako bideak topa ditzakete, eta bide horietan denak dira zilegi".

Pertsonak bere barruko handitasuna deskubritu behar du."

Azken finean, pertsonak barruan darama Jainkoaren sinestea; hori pertsonaren esperientzian oso barrukoa da. Badaude sinesten ez dutenak ere, baina sinistunen artean galderak sortzen dira: zertara nator? Zer egin behar dut?... Eta erlijioak adierazpen bat ematen dio pertsonari, zergatik diren gauzak eta hori dena. Orduan, erlijioa galdera horiei erantzun bat emateko irtenbidea da. Pertsonak badauka bere barruan nolabaiteko handitasun bat baina deskubritu egin behar du.

Bukatzeko, zein da zabaldu nahi zenukeen mezua?

Bizitzan izan gaitezela, batez ere, naturalak eta, kristauak baldin bagara, besteek ikus dezatela gure bizitzak zentzu bat daukala, bizitzan zerbaitetarako gaudela; eta horrekin batera esango nuke ez dugula beldurrik izan behar lasai-lasai zer garen agertzeko. Hori besteei kanporatzea behar-beharrezkoa da; gure baloreak besteei ematea... Taldetxo bat bakarrik hasi zen eta orain begira zenbat garen!

2005eko UDA

Cosme de
churruca

2005eko UDA

Lodiak ere moda-munduan

Azkenaldian gorputz perfektuaren ideia alde batera utzi eta moda estetikoa gizarte osora zabaldu da

Jone Etxaniz, Mutrikuko Institutuko ikasle ohia, moda-munduan murgildu da orain dela gutxi, taila handikoen modan, hain zuzen, eta dagoeneko hainbat ekimenetan parte hartu du. Horien artean aipagarriena biluzik egindako egutegia izan da, nolabaiteko arrakasta ekarri diona. Hona hemen berak zer kontatu digun.

· Gorputz perfektuei buruz zer deritzozu?
Gorputz perfekturik ez da existitzen! Aldizkari eta telebistan agertzen diren neska-mutilek fikziozkoak dirudite; operazioz beteak... Zaren bezalakoa izanda perfektua zarela pentsatu behar duzu.

· Zer iruditzen zaizu lodiak modelu kontuetan aritzea?
Ordua zen jada lodiak ere tartetxo bat izateko modan! Guk ere eskubidea dugu ederrak sentitzeko beste begi batzuen aurrean. Baina oraindik diseinatzaile handien begi ona falta zaigu. Ez dut ulertzen zergatik ez duten guretzako arroparik egiten. Askoz ere jende lodiagoa dago pasareletan agertzen diren eskeleto ibiltariak baino.

· Beti konforme egon al zara zure gorputzarekin?
EZ! Orain dela gutxira arte ez dut ispilura begiratu nahi izan. Beti izan ditut konplexu oso handiak; nire lagunak ni baino argalagoak izan dira eta mutil bat gustatzen zaizunean beti pentsatzen duzu beste neska argalago batekin joango dela zurekin baino lehenago. Baina orain ez diet inolako inbidiarik nire lagunei, ezta beste neskei ere.

· Dietarik egin al duzu inoiz? Zerbait lortu al duzu horren bitartez?
Noski egin ditudala! Baina emaitza onik inoiz ere ez. Dieta bat egiteko konstantea izan behar zara eta nik ezin dut. Nork utzi ahal dio txokolatea jateari? Nik behintzat ez. Oso zaila da dietak mantentzea eta beti zure gorputza zaintzen ibiltzea. Dietak egiten dituen jendea ez da pozik bizi. Nik nahi dudana egiten dut, pasatu gabe noski, eta oso pozik bizi naiz.

"Irailean beste desfile batzuk egin behar ditu Madrilen"

"Nork utzi ahal dio txokolatea jateari?"

· Kritikarik jaso al duzu inoiz? Nola sentitu zara kasu horietan?
Noiz edo noiz entzun izan dut kritikaren bat. Lehen oso gaizki sentiarazten ninduten baina orain ez diet jaramonik egiten. Era honetako kritika batekin mintzeko gai den pertsona bat ez da pertsona. Nire ustetan, beraiek dira arazoa duten bakarrak eta beste norbaitekin ordaintzeko premia izaten dute.

· Osasuna arazoa izan al da zuretzat?
Ez beti, baina orain bai. Aspalditik belaunetan arazoa dut eta pisu hau guztia irabazteak ez dit bat ere mesede egin. Horregatik bakarrik nahiko nuke argaldu, bestela ez. Gainera, niri beti gustatu izan zait kirola eta orain dela urte batzuetatik ezin dut ezer egin.

· Nolako esperientzia izan da egutegian biluzik agertzearena?
SEKULAKOA!!!! Ez nuen inolako lotsarik pasatu. Aurretik ezagutzen ginen denok eta konfiantza handia geneukan, beraz, dena jai giroan egin zen. Oso esperientzia polita izan zen eta ez dut sekula ahaztuko. Gainera, nik eta beste bost neskak egindako lan honekin anorexia eta bulimia duten pertsonei laguntzen ari gara eta horrek gehiago balio dit.

· Bizi izandako zein esperientzia duzu gogokoen? Errepikatuko zenuke?
Madrileko SIMM aretoan igaro nituen lau egunak. Lagunak berriz ikusteko aukera izan nuen eta jende famatu berri asko ezagutzeko aukera. Gainera, desfileetan ez genuen beste modelo argal guztiak joaten diren bezala desfilatu behar. Gurea jai hutsa zen. Musika talde kubatar bat etorri zen eta guk horren martxan egin behar genuen dantzan. Mundu guztia harrituta gelditzen zen gurekin. Baina jaia ez zen hor gel-

BARE - BARE
TABERNA
gosariak, pintxoak, bokatak...
ONDO PASA KALBAIXO JAIXAK!

ATXUKALE
Kirola · Jostailuak · Umeentzako gaiak
TEL.: (943) 60 39 59
Beheko Plaza, z/g
20830 MUTRIKU
Gipuzkoa

ditzen. Gauero modelo guztiok geratzen ginen jaia jarraitzeko eta Madrileko paraje ugari ezagutzeko aukera izan nuen.

· Moda mundua zer da zuretzat: hobbia hala lana?

Orain arte behintzat hobbia da, baina egunen batean nire lana izatea espero dut. Nire ametsa izango litzateke, benetan gustokoen dudan gauza baita.

· Aurrera begira ba al duzu inolako egitasmorik?

Bai, diseinatzaile argentinar batekin ari naiz lanean arropa katalogo baterako, jada bigarrena. Laster Angel Alkain aktorearekin sketch bat egingo dut eta oso urduri nago!! Eta irailean Madrilera bueltatu behar naiz beste desfile batzuk egitera. Nahiago izango nuke lan gehiago izatea baina ezin da. Ikusteko dago oraindik...

LABUR ERANTZUTEKOAK

Zure taila: 50

Oinetako taila: 45

Prakak ala gona nahiago: prakak

Pasarela gainean ala behean nahiago: gainean

Itxura garrantzitsua al da: bai

Mutilak nolakoak: kariñosoak

Miss izateko asmorik: noski

Amets bat: munduko pasarela garrantzitsuenetan lan egitea

GORPUTZ PERFEKTUAREN ARAZOAK

Elikabideari dagozkion arazoak, anorexia eta bulimia bereziki, gizakiaren historia osoan zehar agertu diren arren, gaur egun sekulako kezka harrotu dute, egunetik egunera ohikoagoak bihurtu baitzaizkigu. Egungo edertasun-ereduak geroz eta gorputz lirainagoa ezartzen du eta jende asko bere gorputzaren zerbitzura jartzearen truk, berebiziko irabaziak eragiten dituzten era guztietako produktu dietetikoek inbaditu dute merkatua. Honelako arazoek askozaz ere eragin handiago dute emakumeengan gizonezkoengan baino eta egunetik egunera pertsona gazteagotan agertzen ari da.

Anorexia ez da bakarrik gizentzeko beldurrez jateari uztea, nork bere burua ez onartzea ere bada. Argaltasuna, zoriontasuna eta perfekzioa bilatzeari lotzen zaionez, hori lortzea gaitza duten pertsonek elikagaien kopurua murriztu egiten dute. Gaixotasuna aurrera doala, gaixoak lodiegi ikusten du bere burua. Erdi baraurik sekulako-betekadak (ondoren, nahita eraginiko okada eta guzti) tartekatu egiten dira. Argaltzeko produktuak eta beherakoa probokatzekoak hartu edota gehiegiko ariketa fisikoa egiten da, berealdiko hondamen fisiko eta organikoan amilduz. Anorexia-egoera larrietan, pisu-galera latz eta desnutrizio larri-larriak agertzen dira: ile galtzea, larruazal leho eta ubeldua eta mota askotako arazo hormonalak: amenorrea (hilekorik ez da agertzen), hipotermia (udan bertan ere gaixoa hotzak dago), idorreria eta behar baino lehenagoko betekadak, besteak beste.

Bulimiak bere buruarekin konforme ez dauden eta jakiaz eta pisuaz obsesioa duten pertsonengan du eragina. Bulimikoak berebiziko elikagai-piloak irensten ditu oso denbora-tarte laburretan, baina berehala ezartzen dituzte orekatzeko metodoak: okadak, egundoko jarduera neketsua... Betekadak eta okadak ezkutuan gertatzen dira, gaixoak bizitza bikoitza egiten duelako. Libratzeko zein argaltzeko botiken erabilera eguneroko kontua da. Anorexiarekin gertatzen ez den bezala, bulimikoen itxura osasuntsua da gehienetan, arazoa kanpotik hautematea benetan zaila da. Bulimiaren ondoriozko okadek listu-guruinen tamaina handitzea, hortzetako esmaltea hondatzea, odol-okadak, bihotzerreak eta deshidratazioa ekartzen dituzte, besteak beste. Betekada eta okadak latzak baldin badira, kasurik okerrenean, esofagoaren urraketa eta urdailaren hausketa gerta daiteke.

Bai batean bai bestean ere, gaixoak adina zergati aurki litezke, era guztietakoak. Gaixotasun horien hasieran, nerabezaroan gertatzen diren aldaketa anatomiko-fisiologikoak ez onartzearekin ere lotu izan da: pisu-gehitze azkarra, bizitzan aldaketa latzak, itxura fisikoarekiko konplexuak... Arazoak zergati bat baino gehiago dituenez, dagozkien neurriak aplikatu behar dira: beharrezkoa denean, pisua berriro handitzeko plana, psikoterapia pertsonal edota familiarra eta zenbait kasutan, botikak hartzea. Gaixotasun hauek sendatzeko oso garrantzitsua da gaixotasunaz garaiz jabetzea eta, susmoren bat izanez gero, medikuarengana jotzea. Sendabidea luzea da, aditu oso espezializatuen laguntza behar da eta babes osoa familia eta inguruko pertsonen aldetik. Hau da, ezinbestekoa da familiaren berotasuna gaixoa sendatzeko prozesuan zehar. Helburua gaitzak jotako pertsonak bere baloreetan oinarritutako nortasuna garatzea da, kulturako estereotipoetatik ihes eginda.

LEIRE RODRIGUEZ
(Hizki Marrazki Olgeta 2005, DBHO; Erreportajea-1. saria)

Eta irailean...
DONOSTIAKO ZINEMALDIRA!

Hirurogeita hamabi urteko alarguna zara eta egin berri duzun koadrilarekin edozertara apuntatzen? Ikasten dabilen gaztea haiz eta urrira arte oporrak? Iparramerikako filme komertzialak ikusteaz aspertuta zaude eta gustura ikusiko zenuke beste kultura eta lurraldeetako zinema? Hala bada, Donostiako Nazioarteko Zinemaldia iraileko zure planik onena izan daiteke.

A zer zortea dugun zinema biziki atsegin dugun mutrikuarrok. Izan ere, etxetik bi urratsetara lehen mailako nazioarteko zinemaldia duen gutxi aurki daiteke munduan. Ez dakienarentzat, Donostiakoak Cannes, Berlin edo Veneziako Zinemaldien maila bera du (A kategoria, FIAPF-en arabera) eta hau ez da, inondik inora, txikikeria. Hala ere, Zinemaldia gutxiesteko-edo, batzuek diote Donostiak ez duela Hollywood-eko *megaizar* asko erakartzen, baina batek baino gehiagok nahiko luke Donostiakoak izaten duen adina ikusle.

Aurtengoa 53. Zinemaldia da eta Alfred Hitchcock dugu protagonista bere kartel ofizialean. Maisua hil zenetik hogeita bost urte pasatu izanak eta honen filmografia berrogeita hamahiru pelikulaz osatuta egoteak zerikusi handia izan du, zalantzarik gabe, Zinemaldiak egindako omenaldi txiki honetan.

Hamar egun biribileko zinemaldi hau (15ean hasi eta 24an bukatuko da), Montxo Armendarizek Bernardo Atxagaren eleberri saituan oinarrituta egindako *Obaba* filmeak zabalduko du. *Obaba*-k **Sail Ofizialean** hartuko du parte eta, beraz, Montxok, 1990ean *Alouren eskutitzak*-ekin bezala, *Urrezko Maskorra* lor dezake aurten ere. Baina ez da hau lan erraza izango Armendariz jaunarentzat, lehiaketan garrantzi handiko zuzendariak arituko baitira: Terry Gilliam, Michael Winterbottom eta Zhang Yang, besteak beste.

Belodromoan familia osoak gozaraziko dituzten emanaldiak izango dira

Monty Pythoneko partaide ohia den Terry Gilliamek *Tideland* filmea aurkeztuko du, fantasiazko drama bat. Ez da hari hori jorratzen duen lehen aldia, bere filmeek ametsezko eta irudipenezko ukituak izan baitituzte beti ere, gogoratu bestela *Brazil*, *Errege arrantzalea* (*The Fisher King*) edota *Hamabi tximino* (*Twelve Monkeys*). Gilliam jauna Veneziako Zinemalditik etorriko da han, bai lana egiten duela tipo honek, beste filme berri bat aurkeztuko baitu, *Grimm anaiak* (*The Brothers Grimm*), Matt Damon protagonista duen filmea, hain zuzen ere.

A Cock And Bull Story da Winterbottomek Donostian aurkeztuko duen filmea. Zuzendari honen lehenengo komedia da hau, benetan datu aipagarria honakoa, orain arteko lanetan gizarte eta politika arazoak landu baititu gehienbat. Komedia britainiarra gustuko badu-zu, hauxe da ikusi beharreko filmea.

Zhang Yang txinatarra ez da agian oso ezaguna gure artean baina duela urte gutxi izugarrizko arrakasta izan

zuen haren *Dutxa* (Xizao) filmeak. Sari zaparrada jaso zuen (bost zinemalditan bederatzi sari, ez da marka makala); horietako bat, Donostiako Zinemaldiko zuzendari onenaren *Zilarrezko Maskorra*. *Sunflower* filmearekin itzuliko da gurera, hots, maoren Kultur Iraultzatik egungo Txinako *boom* ekonomikora doazen famili baten gorabeherak kontztzen dituen filmearekin

Sail Ofizialaren lehiaketatik kanpo badaude bestelako aukerak eskaintzen dituzten sailak ere: **Zabaltegi**, **Horizontes Latinos** eta **atzera begirako** hiru ziklo. Aski ezaguna den **Zabaltegi** sailak nazioarteko beste zinemaldietan aurkeztutako filme onenak eskaintzen ditu. Aipagarriak, Cannes-en *Urrezko Palma* irabazitako Jim Jarmusch-en *Broken Flowers* filmea, Kim Ki-duk zuzendari korear txalotuaren *Hwal* deritzan lana, Bertrand Tavernier-en *Holy Lola* eta, nola ez, zinemaldia itxiko duen Woody Allen ikaragarriaren (eman biezaio irakurleak adjektibo honi bere ustez dagokion zentzua) *Match Point*, Scarlett Johansson liluragarria antzezle nagusi duen pelikula, alegia.

Zinemaldiak hamar egun iraungo ditu, irailaren 15etik 24ra arte

Horizontes Latinos sailak Estatuan estreinatu gabeko latinoamerikar filmeen eta urteko espainiar filme interesgarrienen aukeraketa eskainiko du. Benetan parada ezin hobea Argentina eta Mexikon aspaldian sortzen ari diren lan harrigarriak ikustatzeko.

Atzera begirako zikloei dagokienez, Zinemaldiak hiru aurkeztuko ditu: **Klasikoa**, **garaikidea** eta **tematikoa**. **Klasikoak** Robert Wise zuzendari iparamerikarra omenduko du honen filmografia erakutsiz. Wisek era askotako lanak izenpetu zituen, zinema beltz eta western-etatik melodrama eta boxeo-zinera baina, duda gabe, ospea bi filmek eman zioten, *West Side Story* eta *Irribarreak eta malkoak* (*The Sound of Music*).

Zinemaldiak ziklo **garaikidea** *outsider* den Abel Ferrara newyorktar zuzendariari eskaini dio. Ferrara kultuko zinemagilea dugu, bortizkeria handiko filme *underground* batzuen autore. Aparteko egile honen jarraitzaileek aukera paregabea dute haren lanak pantaila handian ikusteko, izan ere, Ferrararen lan asko Europan sekula ez dira estreinatu.

Azkenik, ziklo **tematikoaren** barruan emakumearen askapen-mugimendu geldiezinaren lekuko izan diren filmeak proiektatuko dira, *Errebelde eta Intsumisoak* lemapean. Ikusi ahal izango diren pelikulen artean, Greta Garbo protagonista duen *Kristina erregina* eta Ridley Scott-en *Thelma eta Louise*.

Eta, noski, ez ahaztu **Belodromoa** ere hor duzuela. Itzelezko areto honetan familia osoak baina batez ere haurrek benetan gozaraziko dituzten emanaldiak izango dira.

Bukatzeko, lerro hauetatik gomendio batzuk bidali nahi dizkizugu lagungarri izango zaizulakoan, baina bizitzan ematen dizuten beste edozein gomendiori bezala, hauei ere bere neurrian egin kasu.

Lehenengoa, *pelikulen aukeraketari buruzkoa*. Beldur badiozu zine esperimental, hausle eta nahasgarriari ez zaitez joan itsu-itsuan zinera. Zinemaldiak pelikula guztien deskribapenak eta emanaldien ordutegiak dakartzan gida bat argitaratzen du. Ahal baduzu, lor ezazu gida hori aukeraketa ona egin dezazun. Eta, hala ere, oraindik kontua argi ez baduzu, sekula huts egiten ez duen gomendioa: Beste zinemaldiren batean *Publikoaren Saria* jaso duen pelikula bat aukeratu.

Bigarrena, *sarrerei buruzkoa*. Ilarak ekiditeko erabil itzazu *Servikutxa*, *Telekutxa* edo *Interneteko* zerbitzuak. Prezioari dagokionez, sarrera bakoitzak 4,60 euro balio du baina hamar sarrera erosiz gero %15eko deskontua egingo dizute; hortaz, aintzat hartu hau lagun talde handian bazoaz edo pelikula asko ikusteko asmoa baduzu.

Zabaltegi sailak nazioarteko beste zinemaldietan aurkeztutako filme onenak eskaintzen ditu

Hirugarrena, *pelikulen ikusketari buruzkoa*. Zine aretora sartu aurretik ziur izan ilara luze batean itxaron beharko duzula. Erresumindu beharrean, saia zaitez inguruan soma daitekeen zinema giroa arnasten. Eta aretora sartzean, ez ezazu eraman ezer jateko edo edateko. Alboan esertzen direnek eskertuko dizute.

Azkena, *pelikula osteko solasaldiari buruzkoa*. Filmea bukatzean, komenta itzazu zure inpresioak zinemara joandako lagunekin edo alboan suertatu zaizunarekin. Errepasa itzazu pelikulako elkarrizketak, eszenak, imajinak. Horietako batek zinearen historian ohorezko lekua har lezake, Quentin Tarantinoren *Pulp Fiction* filmean Uma Thurman eta John Travoltak egindako dantzak edo Alfred Hitchcocken *Psycho*-n makina bat aldiz ikusi dugun dutxako erailketak leku hori jadanik hartua duten modura.

Zerbitzu oso ona ematen du Kiroldegiak

Aurtengo udan Kiroldegiaren zerbitzua lehiaketara atera du udalak, aurreko lau urteetan Kirol Berri enpresarekin udalak zeukan kontratua amaitu ondoren. Lehiaketa horretan berrikuntza handiena zera izan da: Frontoiaren kudeaketa Kiroldegiarenari lotzea. Horretaz gehiago jakitearren udal teknikari den Mikel Mariezkurrenarengana jo dugu.

Udan kiroldegiaren zerbitzuaren kontratazioa burutu duzue...

Kiroldegiaren zerbitzua burutu duen enpresarekin zegoen kontratua amaitu egin zen eta tokatu egiten zen kontratazio berria egitea. Horrekin batera, frontoiaren kudeaketarako kontratua ere amaitu egin zen aurten eta biak aldi berean egitea pentsatu zen.

Aurrerantzean, kiroldegia eta frontoia batera kudeatuko dira.

Aldi berean eta pakete berean...

Kirol batzordean argi ikusi zen kirol zerbitzuak batu egin behar zirela eta horrela planteatu zen. Pentsatzen da kudeaketa modu honek onura ekarriko diola frontoiari eta frontoiaren erabiltzaileei ere bai. Kiroldegian, datuak aztertuta, demostratuta dago. Frontoiarekin ere beste horrenbeste gertatzea espero dugu.

Errepikatu egingo du Kirol Berri enpresak...

Bai, bera bakarrik aurkeztu zen eta berari emango zaio. Hala ere, Kirol Berrik egindako eskaintza oso ontzat hartu zen eta lehiaketan jasotako puntuazioa bikaina izan zen. Ziurrenik, Kiroldegia eta frontoia, eta batez ere frontoiari lotutako taberna, dena batera sartzeak atzera botako zituen baldintzak jasotzen zituen dokumentazioa eskuratutako beste enpresa batzuk, baina...

Kirol Berri enpresa izango da, hortaz, Kiroldegiaren eta frontoiaren kudeaketaz arduratuko dena datozen lau urteetan. Gainera, urteka berrituta, beste lau urtez luzatu ahal izango da. Norbaitek esan lezake zortzi urte asko direla, baina uste dugu enpresari denbora eman behar zaiola egiten dituen inbertsioei atarramendua ateratzeko.

Udalak ere egingo ditu inbertsioak...

Kontziente gara ekipamendu bat egon behar dela kiroldegian eta udalak inbertsioak egiten dihardu. Aurten, adibidez, Gravity bi makina ekarri dira Madrildik, pilates lantzekoak, azkeneko tendentzietan erabiltzen direnak. Gutxika-gutxika kiroldegia makinaz hornitzea da helburua. Aurreko urteetan ere, eliptikak (fondoko eskiaren simulaziorako) , muskulaziorako makinak... ekarri ditugu.

Bestalde, bestelako inbertsioak ere egin beharra dago. Dauden geletan leiho egokiak jartzea eta aldageletako lurra aldatzea ere aurreikusita dago aurtengorako.

Pozik al zaudete aurreko 4 urteetan emandako zerbitzuarekin?

Duela 4 urte 120 bat lagun ziren kiroldegiko bazkide; gaur egun, berriz 375 inguru. Datu horrek erakusten digu jende asko joaten dela kiroldegira, gero eta gehiago... Ondarroatik ere badator jendea eta horrek zeozer esan nahiko du.

Zer eskatzen dio udalak enpresa kudeatzaileari?

Garrantzitsuena, kalitatezko zerbitzuak eskaintzea. Kiroldegiaren kudeaketa enpresa pribatu batek eraman arren, udalak kontratuan jasotzen du kobratuko diren prezioak publikoak eta udalak onartutakoak izan behar direla, nahiz eta jakin kalitatea ordaindu egin behar dela bizitzaren beste edozein arlotan bezala. Hortaz, esan daiteke gimnasio pribatuetan eskaintzen diren mailako zerbitzuak jasotzen direla askoz merkeagoak diren prezio publikoetan. Bestetik, udalak bere erabilerarako egun kopuru bat gordetzen du urtero, antolatzen dituen jardueretarako. Frontoian ere berdin jokatuko da: urtean hogeitasei egunetan udalak aukera izango du ekitaldiak burutzeko, adibidez, kirol edo kultur-jarduerak.

Eskaintza oso-oso ona egiten da prezio oso merkeetan.

Orain arteko zerbitzua hobetzea dugu helburu

Kiroldegian jarri dugu hitzordua Kirol Berri SL enpresaren gerente Luis Ferreñorekin. Iragana, oraina eta geroa izan dugu hizketagai. Elkarrizketan zehar, kirolari buruzko kezka eta ardura handia nabaritu diogu, kirolari buruzkoa eta mutrikuarrei buruzkoa.

Lau urte dira Mutrikura iritsi zinela...

Kiroldegia egin zenean ere interesa izan nuen, baina orduko baldintzetan ez sartzea erabaki nuen. Duela lau urte jende askok animatu egin ninduen saiatzera eta aurkeztu egin nintzen, baina esperantza handirik izan gabe. Egia esan, ez nuen uste emango zidatenik. Baina, bai, eman zidaten eta hemen jardun dugu lau urtetan.

Ze balorazio egiten duzu lau urte horien inguruan?

Ni hasi nintzenean 120 bazkide ziren eta asistentzia nahiko txikia zen, gutxi ziren egunero zetozenak. Jarduera dirijituak ere gutxi ziren... Gaur egun, 375 bazkide ditugu eta erabiltzaileak, kiroldegitik pasatzen diren pertsonak, askoz gehiago dira, familiko bazkidetza batean hiru edo lau erabiltzaile bildu baitaitezke. Klase dirijituetatik ere 12.000 lagun pasatzen dira, horietatik 5.000 inguru spinning klaseetatik. Uste dut lan ederra egin dugula eta egindako lanaren emaitzak hor daude.

Inguruko herrietan dudan esperientziarekin konparatuta, kirola egiteko ohiturarik ez dago Mutrikun. Kirola egiten dutenen batez besteko adina hogeita piku urtekoa da hemen, Deban, adibidez, berrogeirtabost urtekoa denean.

Kiroldegitik kanpo ere inplikatu gara, ez kontratuz eskatzen zitzaigulako, egon beharra genuela uste genuelako baizik (spinning eguna, body-combat maratoia, kalian gora proba, herri krosa...); batzuetan antolatzaile, besteetan laguntzaile, hor egoten gara.

Dabilena baino jende helduagoa ere erakarri nahi dugu

Entrenatzaile pertsonalizatua izango da kiroldegian

Pozik zaude beste lau urterako jarraitzea lortuta?

Kiroldegiarekin pozik, gauza berriak egiteko asmoarekin. Frontoiaren kudeaketak eta, zehatzago, frontoiko tabernarekin, berriz, ez oso pozik. Ez dakit zein neurritan izango garen tabernaren kudeaketa egokia eramateko ohizko taberna izan gabe, benetan frontoiari lotutako taberna izanda.

Orain arteko lan-taldeak jarraituko du?

Monitore, zaintzaile eta garbitzaile artean, jardungo dugu lagun aurrerantzean. Frontoiaren kudeaketa berria da guretzat eta ikusiko dugu nola moldatzen garen.

Aurrerantzean...

Orain arteko funtzionamenduarekin jarraitu nahi dugu baina helburu berriak ere baditugu. Adibidez, gaur egun dabilena baino jende helduagoa ere erakarri nahi dugu. Body-balancerekin duela hiru urte hasi ginen eta hori oso egokia da jende horrentzat. Gazteentzat ere berrikuntzarik ekarri nahi dugu, hip-hop, funky, salsa musikan oinarritutako Body-jam.

Beste berrikuntza handi bat entrenatzaile pertsonalizatua izango da, erabiltzaile bakoitzari nahi duena eskaintzeko. Bezeroaren beharretara egokitu nahi dugu, bezeroaren fideltasuna irabazi eta bezeroaren satisfakzio maila handitzea.

Inbertsiorik aurreikusten duzue...

Tamalez, hasierako inbertsioak tabernakoak izango dira. Musika ekipoa, makinaren bat, pertsonala... Guretzat gauza berri-berria denez, ikusiko dugu nola igarotzen ditugun lehenengo hilabeteak.

Hemen dira tropak

Hirurogei ta bederatzi urte beteko dira irailaren 27an Francoren tropak Mutrikun sartu eta okupatu zutela. Kalaputxik atzera hegan egin nahi izan du eta bizi, azaleko gainbegiradaz bada ere, orduko gertaerak.

Lan zaila. Batetik, orduan adinez hogei urtetik gora zuten pertsonek gutxitzen doaz kopuruz eta adimenez eta, bestetik, zauriak oraindik ere guztiz orbaindu gabe daudela nabaritzen da, eta batzuek ez dute nahi beren hitzak Kalaputxiren bozgorailutik aireratzerik. "Nahaste asko izan zen orduan" dio batek. Gazteagoak zirenek erretolika paregabea dute, eta nerabetasunari dagokion bezala, bakoitzak historia bere-berea du, orokortasunaren kaltetan.

Dena den, orduan 13tik 16urte bitartera zuten pertsonek kontatutakoaren gainean osatu da gehienbat orriotako lan hau. Norbaitentzat gustoko beita izatea nahi genuke, ea gorde beharreko memoria historikoaren amuaren garrangak ondo katigatzen duen.

Bigarren errepublika garaia. Frente popularrak elekzioak irabazi 1936an eta Manuel Azaña izendatu errepublikako presidente Madrilen. Egoera korapilatsua. Giro politiko hura Mutrikun nola gauzatzen zen ez dakite azaltzen gure kontakatiluek. Aipatzen digute karlisten egoitza Goiko plazako Galdona jauregiaren lehenengo solairuan zegoela, EAJrena Ametzanekoan, Emakume abertzaleen batzak Tranpakaleko Montalibet jauregian zuela berea, Errepublikanoak gaur Osinaldeneko harategiaren goian eta "solidarioak" ELA/STVk erdiko kalean gaur loradenda dagoen goian. Egoitza hauetan bizi zen giro politikoaz ez dakite baina bai kanpora agertzen zena. Antzerkia zen Emakume abertzale batza eta karlisten egoitzetan ekintza nagusia. Astero edo hamabostean behin taularatzen zituzten obrak eta aktoreen zerrenda bukaezina azaltzen digute non Hollywood´koak baina iaioagoak ziren. Batek dio "ai ke asmar" esaldia ere ordutik datorrela. Errepublikanoen egoitzan «baltseoa» izaten zen.

Azaleko gertakariez aparte, politikak eragindako egoera oso tenkatua eta elkarren arteko bekaizkeria ere nabaria iruditzen zitzaiola dio Itziar Andonegik, une hartan alkate abertzalea zen Nikasio Andonegiren alabak, bere orduko hamasei urteen ikuspegitik.

Irailaren 27an 69 urte beteko dira Francoren tropak Mutrikun sartu zirela

Calvo Soteloren hilketa izan zen Frankoren matxinada piztu zuena, eta uztailaren 17an Afrikan eta 18an penintsulan gerra hasi zen. Euskal Bilerako «toreroak» Donostian gerra zegoelako Malenetako zezenketara ez etortzea izan zen batzuentzat lehen notizia.

Abertzaleek Loiolara deitu zuten gudarosteak osatzera eta hara joandakoen guztientzat ez omen zegoen armarik. *"Lehenengo egun hoietan, 25ean hain zuzen ere hil zen nire ahizpa Frantzizka, 15 urte zituelarik"* dio Manu Illarramendik. Pistola bat bereganatu zuen bere lagun batek, taberna batean hau erakusten ari zela ustekabean disparatu eta bertan gorpu gelditu zen. Abuztuaren batean, bere egunez, erregalatu behar genion soineko berriarekin ehortzi genuen.

Gerra hasi eta tropak Mutrikura sartu bitarte horretan, bi mutrikuar, biak apaizak, afusilatu zituzten milizianoek. Bata Jose Maria Alzibar, Itziarko erretorea; Eulogio Ulazia bestea, Eibarko parrokian koadjutore zena. Denbora horretan, baita ere, gaurko erdiko kaleko mertzeriaren gainean zegoen kartzelara eramaten zituzten nabarmendu ziren herriko zenbait karlista. Tropak sartu aurretik, itsasoz Donostiara eraman zituzten.

Mola jeneralaren esanetara zeuden tropek Irun hartu

ondoren, Bizkaia aldera jo zuten eta laister nabaritu omen zen Mutrikun errepublika aldekoen atzerakadaren eragina. Lehenengo zibilak izan ziren, batzuk familikoak eta beste andana haundi bat hartarako beharrezko zen azpiegitura batek mugitua.

"Gure etxapean pertsona ugari zegoela nabaritzen genuen" dio Pepita Larrañagak, *"eta egun batetik bestera hutsik geratzen zen guztia"*. Beranduago miliziak ere mugimenduan ziren. Itziarrek dio Donostiako juez bat zutela etxean bere familiarekin eta gau batez Bilborako taxia hartzera lagundu zietela, aldean zeramaten tresneria eta abar Txanbolingo atarira garraiatuz. *"Hango mugimenduak harriturik utzi ninduen, metrailetak gainean zituzten kotxe blindatuak, zaldiak, autoak, garraiatzeko balio zuen guztia zegoen han ilunean, argiak itzalita baitzeuden, eta pertsonak haruntz eta honuntz"*.

Itsasoz Frantziara pasatu ziren asko eta asko. Haien artean On Joxe Miel Barandiaran eta Telesforo Monzonen emaztea. Barkuak mugitzen ziren, baina gure berri emaileek ez dute jakin esaten antolakuntzaren hara-honakoak.

Errepublikaren aldekoen tropak hasi ziren egunez ere ikusten, oraindik antolatu gabe. CNTkoak omen ziren, mojen komendu aurrean, halako istilua eragin zutenak, gaua bertan pasatu behar zutela eta mojei irekitzeko aginduz. Mojak kanpaiak joten hasi eta hala jardun omen zuten tornotik sartu zen mutrikuar batek dena baretu zela adierazi zien arte.

Udaletxeko arkupetan ekonomatoa jarri zen janaria banatzeko

Janaria murrizten hasia zen eta udaletxeko arkupetan jarria zen ekonomatoa, janariak hantxe banatzeko. Etorri berria zen barku bete bakailao, ostera, Goiko plazako Beristainen etxe azpian zegoen, gaur okindegia dagoen tokian. Tropak sartzear zirela ateak ireki eta ahal zuenak ahal zuena eraman zuen. Azkenengo bakailaoak bala artean joan ziren ihesi sukaldeetako ohol azpietara.

Matxinatuek lau egun behar izan zituzten Debatik Mutrikura egiteko. Olabarrieta eta Aparain gainean oraindik ere aurkitzen dira bala zorroak. Arremieta gainean izan

Jende askok ihes egin zuen Frantziara Mutrikutik, On Jose Migel Barandiaranek ere bai.

zen hildakorik. Bi gorpu lurperatu ei zuten, lehenengo gurutzearen inguruan. Mutriku inguratu omen zuten eta Hirizahar bidean behera erreketeak azaldu orduko Galdona aldera sartuta omen zeuden, alde horretatik azken unera arte herrian iraun zutenei irteera galeraziaz. Ilunabarrean entzun omen ziren ¡Viva España! etxe batzuetatik eta soldaduen ¡Todos a la calle! ohiuak eta txapel gorriak ikusi kaleetan, koltxoiez babestutako leiho zirrikituetatik.

Falangistak Miruaitzetik sartu zirela dio Pedro Txurruka "Ziñuak", bera 16 urterekin Leten belarretan zela. Aportategi aldetik ere falangistak sartu omen ziren ete beren artean une batean tiroka jardun ere, haga baten zapi zuria jarri eta gelditu ziren arte. Han izan ziren madarikazioak!

Burgoatik eta Korostolara arteko gainak hartu zuten eta handik ia Kalamuara arte. Sei hilabete iraun zuten tropa buruek Armetxa goikoan, Miloi eta inguruko gainak Errepublikaren aldekoen eskuetan ziren bitartean. Berari garraio lanak egitera behartu zioten idi pare eta gurdiarekin. Gauerako Saturranera joan, bertan lo egin uztarria buruko zuela, eta goizez gurdia janariz beteta Berriatu aldera, han zeuden tropei ornitzeko.

Blas Ulazia izendatu zuten alkate, eta neguaren itzal beltza zabaldu zen.

Teodora Arrizabalaga "Sanjuantxikik", adibidez, bere gogoan hiltzaturik du aita urriaren 22an afusilatu zutela Mutrikuko kanposantu atzean eta, bera afaria eramatera joan zenean, etxera laister joango zela esan ziola bakarrik ditu. Non zegoen kartzeleratuta, nortzuek eman zioten notizia, Telesforo erretoreak konfesatu zuen ala ez, zenbat egun egin zituen preso... denak bildu ditu laino batean eta ahaztu, ardura ezaren eremuan.

Historiaren zati hura, ardura ezaren eremuan geratuta dagoena, berreskuratzeko sasoia izan daiteke oraindik. Urtetik urtera, gero eta zailagoa izango da gure herriaren memoria historikoaren berri jasotzea. Ea gure zaharrei galdetu eta gai garen historia hura eta istorio haiek geureganatzen...

zorion agurrak

JUANTXO eta JULEN
Abuztuaren 7an eta 14an bixoi lau, lau sardina bakalau... Zorionak denon partez, batez ere llazki eta amatxo.

MAREN
Urri, urri, bihurri... hala esaten diote irailean bi urte beteko dituen gure etxeko plantoxa politxari. Zorionak! Eta aitatxori ere belarritxik teinkara batzuk, bale?

PERU
Hiru, hiru, hiru... kolkua bete malixia daukan gure filibustero maitagarriari, Zorionak!
Tolon & Masillas konpañi.

NAHIA
Irailean gure Nahiak lehenengo urtea beteko duenez, zorionak berari, batez ere Danelen partez.

LEIRE
Abuztuaren 17an 5 urte bete zenuenez, zorionak Lasarten bizi den gure printzesa maiteari. Zorionak danon partez, berezi-ki birrramonaren partez. Muxu asko zuretzat!

NAHIA 2
Etxeko printzesiai 8 urte bete dituelako Alaitz, aita eta amaren partez Zorionak! Jarraitu horrelakoxe zintzoa izaten!

MARIANA
Bare-Bareko zerbitzari finari zorionak! Ian gitxio eta parranda geixo!

JAIONE-OIER

Azkenean iritsi da eguna! Ondo pasa zuen ezkontza egunean eta orain arte bezain zorion-tsuak izaten jarrai-tu!

MERTXE
Zorionak Bebe! Zain gaude zure urtebete-tzea zurekin ospatze-ko. Etorri oparia jaso-tzera... eta guri ere ekarri beste bat.

MIREN
Zorionak, Miren, lagun danon partez! Ospatuko dugu bai, ederki asko, urte berria!

HITZ GURUTZATUAK



EZKER-ESKUIN:
1.-Sakabanaketaren ondotioa. 2.-Jasanezinak. 3.-Sodioa. Etzaleku. Tona. Baitu. 4.- Duintasuna merezi duena. Setati. 5.- Eskuko hatza, atzaparra. Kanpo, landa. 6.-Suari dario. Triangelu bateko alde bat. Lehenengo bokala. 7.- Gora egin. Etxeko abere. Musika nota. 8.- Nuen, hari. Gauero egin ohi dugu. Gurpilik gabeko gurdia.

GOITIK-BEHERA:
1.- Sendagai. 2.- Araudi. 3.- Errepikatuz, gorotza. Aurrizkia. Bokal errepikatua. 4.- Gurasoen amak, Nitrogenoa. 5.- Ertamerikako estatua, izen bereko irletan. 6.- Emakume izena. 7.- Neona. Lanestosako auzoa. 8.- Azterketa egin. 9.- Modu atzizkia. Txinuko iraultzailea. Berrogeita hamar. 10.- Nirea. Bihi. 11.- Opila Ez eme. 12.- (Neol.) kafea. Bokala.

argazki zaharrak

SORPRESA BATELEKO TRIPULAZIOA, 1972 urtea

1972ko irailaren 16an, Galbaixo jaixetan Piñastei eguneko estropada herrikoian parte hartu zuen *Sorpresa* bateleko tripulazioa.
Ezkerretik hasita: Juan Karlos Arrieta, Xabi Illarramandi, Iñaki Agirregomezkorta «Txartxa», Jose Luis Zumalabe eta Ander Garagarza.

LARRAÑAGATARRAK 1955 URTEKO EUSKAL JAIAN

KALAPUTXI **egiten parte hartu nahi baduzu, deitu 635748393 telefonora. Gustura hartuko zaitugu!**

Irailak 10, zapatua BERTSO JAIALDIA

Miruaitz Pilotalekuan 22:30etan
Bertsolariak: Lizaso, Egaña, Irazu, Unai Iturriaga, Xabier Astigarraga
Lekua: Miruaitz Forontoia
Sarrera: 3 euro; 16 urtetik gorako gazteak 1 _
Antolatzailea: Bertso Eskola

Irailak 11, domeka

Mutrikuko II. Mendi bizikleta martxa
Goizeko 10etan Goiko plazatik abiatuta

Mendi irteera: Lokizko Mendikatea (Kontrasta...Ulibarri)
Burumendi Mendi Elkarteak antolatuta

17:00etan Zesta Punta, Miruaitz Pilotalekuan.

Irailak 13, martitzena, KALBAIXO BEZPERA

17:00etan Zesta Punta, Miruaitz Pilotalekuan. Final laurdenak.
22:30etan: Danborrada, Anaiarte Biltokiak antolatuta
23:30etan: Dantzaldia GAUBELA taldearekin, Beheko Plazan

Irailak 14, eguaztena, KALBAIXO EGUNA

08:00etatik aurrera: Mezak Kalbaixoko Ermitan
11:00etan Meza nagusia, Kalbaixoko Ermitan
12:00etan Bertsolariak, harrijasotzaileak...
Ondoren, Gotxibehera jaitsiera
19:00etan Sokamuturra
20:30etan Txaranga, Kaleetan zehar
23:00etan Dantzaldia EGAN taldearekin

Irailak 15, eguena, KALBAIXO TXIKI EGUNA

10:00etan Marmitako lehiaketa, Beheko Plazan, Txoko Eder Elkarteak antolatuta.
11:30etan Erraldoiak eta buruhandiak, Txistulari Taldeak lagunduta.
12:00etan Pottokak eta zezen txikiak Txurruka Plazan
13:00etan Herriko Bandaren kontzertua Beheko Plazan
14:00etan Marmitako lehiaketaren sari banaketa eta subasta
17:00etan Haurrentzako jolasak Sointek taldearen eskutik, Txurruka Plazan
17:00etan Zesta Punta, Miruaitz Pilotalekuan. Finalerdiak.
19:00etan Sokamuturra
20:00etan "Perfusion" taldearen kalejira
23:00etan: Disko-festa, Beheko Plazan

Irailak 16, barixakua, PIÑASTEI EGUNA

10:30etan Jubilatuentzako hamarretakoa.
Jarraian, ume eta gazteentzako lehengo erako jolasak (ginkana...).
Ondoren, sardina erreak Piñastegi Plazan
Antolatzailea: Aizabia Elkartea
11:30etan Uretako haur parkea piztinan
11:30etan Estropada herrkoiak, Mutrikuko Arraun Taldeak antolatuta
13:00etan Sokamuturra
16:00etan Uretako haur parkea
18:00etan Kukainak Kofradi Zaharrean. Ondoren patxak.
19:00etan Sokamuturra
23:00etan Dantzaldia Luharts taldearekin Beheko Plazan.

Irailak 17, zapatua

17:00etan Zesta Punta, Miruaitz Pilotalekuan. Finala.
17:00etan, Kalbaixoko zelaian, VIII. ARTZAIN TXAKUR LEHIAKETA
Gaueko 11:00etan Gariren kontzertua Beheko plazan

Irailak 18, domeka

Gauean, Idi probak Kalbaixon

Urriak 9, domeka

Mendi irteera: Mercadillo-Castro Grande-Peñalba (Sierra Magdalena)
Burumendi Mendi Elkarteak antolatuta

Urriak 12, eguaztena

Mutrikuko Herri-Krosa

Urriak 15, zapatua

Debabarreneko Jazz jardunaldietako Jaz kontzertua: Miren Aranburu boskotea.
Zabiel kultur etxean arratsaldeko 20:00etan

ZUEN ELKARTEAK ANTOLATUTAKO EKITALDIEN BERRI EMAN NAHI BADUZUE,
HEMEN DUZU
KALAPUTXI!
Tel.: 635748393

Estetika eta Terapia Institutoa

1- Aurpegi eta gorputzeko tratamenduak

2- Masajea :

- Estetikoa
- Terapeutikoa

3- Drenaje linfatikoa

4- Depilazioak :

- Beroa
- Hotza
- Elektrikoa
- Laserra

5- Pedikura - Manikura

6- Makillajeak

7- Mikropigmentazioa

8- Hidromasajea

9- Kontsulta medikoa

10- Dietista

Laserraren plazerra proba ezazu !

Pisua kontrolatzeko dietista.

Etorri eta Galdetu !

Beheko Plaza, 5
Tlfnoa.: 943 60 42 29
20830 Mutriku

BERTAN ELKARTEA
OSATZEN DUTEN DENDAK:

- AGERRETXO OINETAKOAK
- ALBARO DENDA
- ALDATU ETXEA
- ANDONEGI JANTZIDENDA
- ATERPE ALTZARIAK
- AUTOS MUTRIKU
- BERISTAIN LIBURUDENDA
- BUCEO EUSKADI
- DONIBANE OKINDEGIA
- ERDIKO MERTZERIA
- EGUZKILORE
- GUADALUPE DENDA
- HEIDIN DENDA
- IPARRAGIRRE ALTZARIAK
- OPTIKA
- IÑIGO-BELEN
- IZARRA UME JANTZIAK
- IRIPE
- APAIN
- JONE LORADENDA
- LON APRAIZ BOTIKA
- MADARIAGA
- MANEIRO LENTZERIA
- MICROSYSTEM
- MILA FRUITADENDA
- MENDIBE KIROLAK
- OINEZ KIROLAK
- OLAIZOLA UME JANTZIAK
- OLATZ MERTZERIA
- POTERO
- TINKO SPORT
- TXALUPA LIBURUDENDA
- URKIRI ELIKAGAIAK

mutrikuko dendarien elkartea

Bertan gaituzu!